



OSASUNA ZAINDU

ESAN AGUR ZABORRARI

Atez ateko bilketari esker,
37.000 gipuzkoarrek ez dute
gehiago zaborrik sortzen


sanmarko
zero bikaina



% 100

Materia organikoan dago gakoa. Atez ateko bilketarekin materia **organikoaren %100** biltzen da bereizita. Horrela, ez da zaborrik sortzen

ZABORRAREKIN BUKATU BEHAR DUGU. HONDAKIN ORGANIKOAK ZABOR BIHURTZEN DIRA GAINONTZEKO HONDARREKIN NAHASTUTA. BERAZ, MATERIA ORGANIKOA GAINONTZEKO HONDAKIN ATALEKIN EZ NAHASTEAN DAGO GAKOA

Hain zuzen ere, etxe hondakinen %42 da materia organikoa. Horregatik, hondar organikoak bereizita bildu eta konpostatuta, arazoaren zatirik handiena konpontzen dugu. Horrela, ez da zabor nahastu eta arriskutsurik sortzen.

ATEZ ATEKO BILKETAREKIN, HONDAKIN ORGANIKOEN %100 BILTZEN DA GAIKA

Horixe da atez atekoaren arrakastaren gakoa: organiko guztia gaika biltzea, horrela ez baita nahasten gainerako hondakinekin. Horri esker, organikoa konpostatu egiten da eta gainerako ia guztia birziklatu.

ESAN AGUR ZABORRARI

Hondakin birziklagarri guztiak gaika bilduta, ez da zaborrik sortzen. Birziklagarria ez den %10eko errefusa gelditzen zaigu, baina inerteza denez, ez da kutsakorra eta ez du osasun arazorik sortzen. Ondorioz, egungo zabor-tegi eta errauste-planta toxikoak ez dira beharrezkoak. Errefusa apur horrek, gainera, ez du erretzeko balio; ez baitu konbustio indarrik.

HONDAKINAK LEHENGAIK DIRA, EZ ZABORRA

Hondar organikoak, papera/kartoia, ontzi arinak eta beira behar bezala sailkatuta, birziklatu egiten dira. Ez dira zaborra.

ATEZ ATEKO BILKETA: HERRITARREK KONPONTZEN DUTE ARAZOA

37.000 gipuzkoarrek jada egiten dute Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen. Hiru herri horiek ez dute gehiago zaborrik sortzen. Zaborraren arazoa herritarren kontzientzia ezari egotzi izan zaio sarri, baina atez atekoak erakutsi du herritarrek ez direla arazoa, soluzioa baizik.



18 milioi

Munduko hiri askotan biltzen dira hondakinak atez ate. **Italian**, adibidez, **18 milioi pertsonak** egiten dute

| KATALUNIA

Katalunian 100 herri ari dira hondakinak atez ate biltzen. Duela 10 urte hasi ziren, eta 380.000 biztanlek egiten dute atez atekoa.

| SAN FRANTZISKO (AEB)

San Frantziskon legez debekatuta dago hondakin-mota ezberdinak nahastea. 820.000 biztanle ditu San Frantziskok eta “zero waste” (“zero zabor”) helburua jarri diote bere buruari 2020rako. Une honetan hondakinaren %72 birziklatzen dute. Errausketaren kostu handia eta emaitza eskasa aurreikusita, moratoria ezarri eta atez atekoarekin saiatzzen ari dira.

| GIPUZKOA

Urtebetean, Usurbil, Hernani eta Oiartzungo 37.000 gipuzkoarrek bere hondakinaren arazoa konpontzea lortu dute. Laster, 100.000 izango dira. Gipuzkoa 700.000 biztanle dituen lurralde txikia dela kontuan izanik, erraza litzateke “zero zabor” lurraldea izatea. Beste asko ere ahalegin berean ari dira.

| ITALIA

18 milioi biztanleren hondakinak biltzen dira atez ate. Urrats garrantzitsuak eman dituzte hondakin gutxiago sortzeko bidean. Hemen ez bezala, legeak berak agintzen ditu birziklatzetarako eta administrazioak diruz laguntzen ditu atez ateko bilketaren ezarpenak.

| TAIWAN

“Zero waste” helburua jarri dio bere buruari 2020rako, zabortegiak eta errauste-plantak ixteko asmoarekin. Zaborra %65 gutxitu dute jada, eta hori dena orain birziklatu egiten dute. Uste baino lehenago lortuko dute bere helburua.

%80

Usurbil, Hernani eta Oiartzunen hondakinen %80 baino gehiago birziklatzen dute

HONDAKINAK LEHENGAIK DIRA, EZ ZABORRA

Ditugun baliabide naturalak ez dira amaigabeak. Gure ardura da baliabide horiek zaindu eta arduraz erabiltzea. Egungo produkzio eta kontsumo sistema ez da jasangarria, etengabe erauzten baititu lehengaiak naturatik. Gero, osasun eta ingurumenarentzat kaltegarriak diren zabortegetan pilatu edo errauste-plantetan deusezten dira, gainera.

Atez ateko bilketak horrekin guztiarekin amaitzen du, birziklagarriak diren hondakin guztiak birziklatzen baititu. Lehen zaborra zirenak, lehengaiak dira orain. Naturatik lehengai gutxiago erauzten dira, energia gutxiago behar da produktu berriak sortzeko, eta ez da zabortegei nahiz errauste-planta toxikoen beharrik.



MATERIA ORGANIKOA

Sukaldeko janari hondarrak nahiz lorategi edo baratzeakoak birziklagarriak dira, gaika bilduz gero. Jasotako material guztia Lapatzeko (Azpeitia) konposta-plantara eramaten da. Bertan, inausketa hondarrekin nahasita, konposta-makinetan tratatzen dute. Etxean bertan ere kudeatu daiteke materia organikoa. Nahikoa dira lur zati bat eta konposta-kaxa. Hondakinak kaxa barrura bota eta, temperatura eta hezetasuna kontrolatuz, 3-6 hileko epean, lorategiko landareentzat ongarria izango dugu.



ONTZI ARINAK

Ontzi arinak plastikozko zein metalezko bilgarriak eta ontziak dira; produktuak bildu eta ontziratzeke erabiltzen direnak, alegia. Etxean jasotako ontzi arinak Sanmarkok Urnietan duen sailkatze-plantara eramaten dira. Material horiekin plastikozko eta metalezko ontziak, plastikozko poltsak, hiri altzariak, txapak nahiz giltza berriak egiten dira.



PAPERA ETA KARTOIA

Bildutako paper eta kartoi guztia Martutenekeo (Donostia) Despanorsa sailkatze-plantara eramaten da, handik paper-fabriketara bideratzeko. Prentsarako papera, gutun-azalak, orriak, kartoizko kaxak... egiteko erabiltzen da paper hori.



BEIRA

Kaleko iglu berdean bildutako ontzi eta botilak dira beira. Jasotako beira guztia Ecovidrio enpresak Laudion duen plantara eramaten da. Behin beira mota ezberdinak bereizita, urtu egiten da Vidrala enpresan, Laudion bertan. Beirazko ontzi eta botila berriak egiteko erabiltzen da urtutako material hori.

Emaitza bikainak

Atez ateko bilketa eraginkorragoa da, garestiagoa izan gabe



Atez ateko bilketarekin, oso epe laburrean, nabarmen gutxitzen da sortzen den errefusa kantitatea. Usurbil, Hernani eta Oiartzunen, hiruen artean, hilean **834 tona*** errefusa biltzen ziren hondakinak atez ate biltzen hasi aurretik. Egun, aldiz, **134 tona***; lehen baino **700 tona gutxiago**, alegia.



Atez ateko bilketa-sistema ez da beste sistemak baino garestiagoa. Egia da bilketa bera garestiagoa dela, baina gastu horiek orekatu egiten dira errefusaren tratamenduan aurrezten denarekin. Gainera, Usurbil, Hernani eta Oiartzungo Udalek papera/kartoia eta ontzi arinen salmentako diru-sarrerak ere badituzte.



Materia organikoaren bilketan dago guztiaren gakoa. Usurbil, Hernani eta Oiartzunen (37.000 biztanle) **300 tona** hondar organiko jaso dituzte hilabetean**. 5. edukiontziaekin, 87.275 gipuzkoarrek **70 tona** jasotzen dituzte hilean**. Atez ate 5. edukiontziaekin baino **lau aldiz materia organiko gehiago** jasotzen da hilean.

errefusaren
tratamendua
6 aldiz
merkeagoa

Errefusa nabarmen gutxitzea abantaila ekonomikoa ere bada. Usurbil, Hernani eta Oiartzunek 100.658 euro aurrezten dituzte, hilean.

465
lanpostu berri
Gipuzkoan

Usurbil, Hernani eta Oiartzungo Udalek 24 lanpostu berri sortu dituzte.

materia organikoaren
garbitasuna
%99 koa

Materia organikoaren garbitasun mailak %99koa langa gaintzen du. Biltzen diren hondakin organikoak eta lortzen den konposta oso kalitatea onekoak dira.

* Usurbilgo 2008ko martxoko datuak, Hernani eta Oiartzungo 2009ko maiatzeko datuak, ** 2010eko maiatzeko datuak, Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, Sanmarko Mankomunitatea eta Usurbil, Hernani eta Oiartzungo Udalak. Emandako datuak iturrietatik jasotako informaziotik ateratako erreferentziako kalkulak dira.